



Loitzate

etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa: Lotxáte / Lótxete



43° 9' 16"

2° 34' 3"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casa llamada Loizate... en la cofradía de Murgoitio de la anteiglesia de Berriz, es de dos viviendas compuestas cada una de cocina, cuartos y cuadras en el piso bajo, y en el principal de cuartos, camarotes y pajares; al frente la casa accesoria ó arnaga y horno, ocupan unidos edificios con los zaguanes y una pequeña huerta trescientas cuarenta y cinco y medios estados, o sean trece área y doce centiáreas...”

DJE 5/81 or. (1882)

Berriz eta Elorrio arteko mugan kokatzen den baserri honen inguruko lehen arrasto dokumentala 1704koa da, eta harrezkero, izen bera-ekin ezagutu da, urteak aurrera egin ahala. Baserriak 1905. urtean Bizkaiko Foru Aldundiak antolaturiko abereen lehiaketa bat irabazi zuenaren seinale, sarrera gainean plaka bat dauka. Izkina batcan baserria XVIII. mendearen hasieran eraiki zela esaten duen inskripzioa dugu.

Baserri etxe ederra da, bi isurkitako teilatua duena eta fatxada itxuraldatuta daukana hainbat obra egin direlako, tartean 1898koa, balkoia zabaldu, leihoren bat itxi, berriak ireki eta eskuma aldean handitu egin zutelako, fatxadaren lerroa aldatuta. Baina oraindik ondo antzeman daiteke XVIII. mende hasieran indarrean zegoen

tankera, *Arboletanagusia* (**Ikusi Arboletanagusia**) gertatzen den moduan. Hau da, erdiko gorputza indartu gura izan zuten, atarteko arku biekina eta ardatzean, bata bestearen gainean zabaldu zituzten leihoekin, hau da, lehenengo solairukoa, baita alboetan izango zituen beste biak (bat bakarrik kontserbatzen du) eta ganbarako txikitxoa, besteak beste. Alboko gorputzetan, leiho bana izango zuen, beheko plantan, eta lehenengoan, txikiagoa. Harlangaitza erabili zuten ormetan eta harlandu ederra arku eta leiho ertzetan. Inskripzioak argi eta garbi ematen du jatorrizko etxearen berri: *“HIZO ESTA OBRA JOAN DE LOYZATE Y ANA DE AR(R)IA SU MUGER EL AÑO 1705”*.

toponimia

Izen honen osagaiak “loitza” (“lohi asko dagoen lekua”) eta “ate” dira.